



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2022/2023 Denboraldia

26. ZIRKULARRA

KADETEEN EUSKAL KOPA - LEHEN FASEAREN ZOZKETA – FINAL LAURDENAK -

Gaurko egunean, eta denboraldi honetako 22. zirkularrean ezarritako Lehiaketa Oinarrien eta Arau Erregulatzailen jarraipen gisa, Kadeteen Euskal Kopako Lehen Fasea – Final-laurdenak zozketatu dira.

1.- KLUB PARTE-HARTZAILEAK

Antiguoko K.E., Athletic Club, Deportivo Alavés, S.D. Eibar, Kostkas K.E., Real Sociedad de Fútbol, Romo F.C. eta C.D. Vasconia.

2.- FINAL LAURDENETAKO ZOZKETAREN EMAITZA

- 1- REAL SOCIEDAD DE FUTBOL – ANTIGUOKO K.E.
- 2- KOSTKAS K.E. – ROMO F.C.
- 3- ATHLETIC CLUB – C.D. VASCONIA
- 4- DEPORTIVO ALAVES – S.D. EIBAR

3.- DATA

Kadeteen Euskal Kopako Lehiaketa Oinarrien eta Arau Erregulatzailen arabera, partida bakarreko final-laurdenak maiatzaren 13-14an jokatu dira.

4.- BERDINKETAK

Balizko berdinketak Euskadiko Futbol Federakundearen Araudi Orokorrean ezarrita dagoen bezala ebatziko dira, talde bakoitzak bost penalti botako lituzke, jaurtiketa alternatiboki eginik, hau da, lehenengo penaltia talde batek eta gero besteak, horrela talde bakoitzak dagokizkion bostak jaurti arte. Jaurtiketa hasi baino lehen, zein hasiko ote den jakiteko zozketa egingo da irabazlea aukeratuz nork jaurtiko duen lehen, eta ate berberaren aurrean jokalaria desberdinek jaurti



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL


beharko dituzte beraien taldeen penaltiak. Gol gehien lortzen dituen taldeak irabaziko du. Bost jaurtiketak egin eta gero berdinketak jarraituko balu, jaurtiketak ordenu berean jarraituko dute, banan-banan, eta lehen jaurtiketak egin ez dituzten beste jokalaririk batzuk egin beharko dituzte jaurtiketak, jaurtiketa kopuru berdina egin eta gero, bi taldeetako batek tanto baten diferentzia lortu arte, eta honela garaile izanik.

Jaurtiketa hauek aurreko luzapena bukatu eta gero zelaiean gelditzen ziren jokalariek bakarrik egin ditzazkete, edozeinek atezaina ordezkatzeko posibilitatea izanik.

4.- HURRENGO ZOZKETA

Finalerdietako zozketa maiatzaren 15ean, astelehenean, egingo da, 13:30etan, Euskadiko Futbol Federakundearen egoitzan, eta Euskadiko Federazioaren [Youtubeko kanal ofizialean](#) ikusi ahal izango da.

Bilbo, 2023ko maiatzaren 5a



ALLICA

KEPA ALLICA BILBAO
Secretario General